



Irakurketa Errazean

Pompelo hirian agertutako emakumeen lehen izenak dituen hilarria.

Hilarria pertsona baten hilobia
non dagoen seinaleztatzeko balio duen
monumentu bat da.

Gaur egun, hilarriak hilerrietan jartzen dira.



Hilarri hau ez da jatorrizko hilarria,
kopia bat da.

Emakumeen izenak irakur daitezkeen

Pompelo hiriko lehen hilarriaren
kopia bat da.

Lehen Iruña hiria Ponpelo deitzen zen.

Kopia honekin, Iruñeko Udalak
gizarteari historia hurbildu nahi dio
eta emakumeek garai hartan egindako guztia
baloratu eta aitortu nahi du.

Hilarria Pompelo hiriaren hegoaldean zegoen.
Hegoaldeko esparrua Merced, Telleria
eta Labriteko kaleen artean zegoen.

Hilarri hau hondarrez egina dago
eta II. mendekoa da,
hau da, 2. mendekoa.

Hilarri hau 1895. urtean aurkitu zen
Alde Zaharrean dagoen
Iruñeko Navarrería kalean.

Hilarria II. mendeko
4 emakumeri eskainia dago:

1. Festari.
2. Rusticari.
3. Stratiari.
4. Antoniari.

4 emakume hauek
Pompeloko kaleetatik paseatzen,
festetara joaten edo merkatuan erosten
imaginatu ditzakegu.

La Mañueta kaleko edo Gazteluko Plazako
bainu-etxeetan bainu bat hartzen ere
imaginatu ditzakegu.

Bainu-etxeak antzinatean
hiri eta herri askotan zeuden
bainu publikoak ziren.